

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4354

AGINDUA, 2014ko urriaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez iragartzen baitira prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen 2014ko deialdirako diru-laguntzak, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean emanak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa (Berriker programa).

Urriaren 7ko 423/2013 Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa da (Berriker programa), 2013ko azaroaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 225 zenbakian, argitaratua, eta haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza piztu eta bultzatzeko laguntzen erregimena ezarri eta arautzea.

Araubide horrek ahalbidetzen du, besteak beste, laguntzen gaineko interesik gabeko mailegu gisa ematea laguntzok (VI. kapituluan jasota daude).

Aipatutako dekretuaren 10. artikulua ezartzen du bertan ezarritako laguntzetarako deialdia egingo dela urtero eta artikulua horretan jasotzen diren puntu batzuk zehaztuko direla.

2014ko ekitaldiko une honetan, aipatu dekretuan ezarritako laguntza-lerro baten deialdia soilik iragarriko da, zehazki, VI. kapituluan jasotako lerroarena, hau da, «*prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen laguntzak*».

Lehenago, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren Aginduaren bidez iragarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikaduraren eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko laguntzetarako urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren II., V. eta VII. kapituluetan jasotako 2014rako deialdirako diru-laguntzak (Berriker programa).

EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.5 artikulua ezartzen duenez, ekitaldi ekonomiko bakoitzean EAEko Aurrekontu Orokorak indarrean jartzen direnean, programen diru-laguntzak emateko arauak eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, ezarriko dira, eta kasuan kasuko deialdia egingo da bere garaian izaera mugagabez arautu zirenentzat.

Abenduaren 20ko 4/2013 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorak onartu ziren.

Bada, bi arau horiek aplikatuz, nekazaritzaren, elikaduraren eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko laguntzen deialdia egiten da, 2014ko ekitaldirako.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da iragartzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzko urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean emandako 2014ko deialdirako prozesuen alorreko berrikuntza proiektuen diru-laguntzak (Berriker programa).

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea eta eskabide-eredua.

1.– Hilabetekoa izango da urriaren 7ko 423/2013 Dekretuan aurreikusitako laguntza-eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunik hasita.

2.– Urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 8. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, proiektuak epean aurkeztu direla ulertuko da, baldin eta eskabidea aurretik aurkeztu bada, 2014ko ekitaldiaren barnean, betiere.

3.– Onartu egiten da, halaber, VI. kapituluetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide-eredua. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan egongo da eskuragarri eredu horren eskabide-orria (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bai eta web-orri honetan ere: www.nasdap.ejgv.euskadi.net

Hirugarrena.– Gehieneko diru-zuzkidura.

Euskal Autonomia Erkidegoren Aurrekontu Orokorraren kargura VI. kapituluan aurreikusitako proiektuak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kreditua 5.420.000 eurokoa da. Horietatik, 542.000 euro 2014. urteko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainontzekoa, 2023. urte arteko konpromiso-kredituari.

Laugarrena.– Inbertsioak, proiektuak eta gastuak gauzatzeko epea.

VI. kapituluan aurreikusitako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-proiektuak 24 hilabeteko epean gauzatu beharko dira zero intereseko mailegua emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera, hartatik eragotzi gabe 16. artikuluen 3. paragrafoan eta 19. artikuluen 4. paragrafoan xedatutakoa.

Bosgarrena.– Proiektuak baloratzeko eta laguntzak kuantifikatzeko irizpide objektiboak.

VI. kapituluan aurreikusitako proiektuak baloratzeko, aintzat hartuko dira urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 11. artikuluko 2. paragrafoan bildutako irizpide guztiak.

Seigarrena.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntzak eskatzen dituztenek, eskabidearekin batera, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 9. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.– Aurreko agiriez gain, laguntza eskatzen dutenek urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

Zazpigarrena.– Erakunde laguntzailea.

Urriaren 7ko 423/2013 Dekretuko VI. kapituluan ezarritako laguntza ekonomikoen finantza-kudeaketaren ondorioetarako, Euskal Finantza Erakundea izendatzen da erakunde laguntzaile.

2014ko urriaren 17a, ostirala

Zortzigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez diezaiokete interesdunek Ekonomia-ren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administra-zioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunear hasiko dira epeak.

Bederatzigarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 15a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.